

Baina arkitektoa naiz



Ula Iruretagoiena °

Galdera orokor eta konplexua da arkitekto bat zer den definitzea. Garai bakoitzak arkitektoari eginkizun bat esleitu diola baieztatu nuke. Arkitekturak bete beharreko helburuei buruz aunitz idatzi da, behar funtzionalak ebatzitez gain, materialtasun espazialak munduaren ulerpenaren inguruko adierazpena izaterik baduelako. Horra hor betiko gatazka, egiteko praktikoko esparrua soilik ote den edo lan espiritualekin loturikoa ote den, hots, artea edo zientzia ote den. Biak kontuan hartzekoak direla esango nuke, gizakiarekin erlazionaturiko edozein ekintzatan bi alderdi horien emaitza bateratua tartean delako.

Kontsumoak menderaturiko garai honetan kultura, eta beraz arkitektura, azkar ekoitzi eta azkar kontsumitzen den produktua da (erabili eta bota kontzeptupean). Merkatuak ezartzen duen lehian, ohikotasunetik aldentzea da arkitekturak hartu duen bidea, nobedadeak egiten baitu ikusmiran izatea eta bikaintasunaren balioa horretan datza hain zuzen ere, salerosketarako emaitza bat lortzean. Hori dela-eta, arkitekturaren balioa ikus-irudiaren pean uzten da maiz, arkitektura ulerterraza eta irakurgai egiten duena gainera, demokratikoa dena, edozeinek kontsumitu ahal izateko. Arkitektura ideologikoki hustu egin da eta arkitektoak ikusgarritasunaren bilaketan jardun du, izaera indibidualista indartuz.

Baina arkitektura hau ez da gure gizarteak behar duena, merkatuak eskatzen duena baizik. Horregatik leporatzen zaio arkitekturari bere gizatasuna galdu izana. Bizi izan dugun oparotasun-tendentziaren ondorioa da hau, Gianni Vattimoren “pentsamendu ahularen” erakusgarri.

Bizi dugun garai berriari aurre egiteko bestelako edukia jaso beharko du arkitekturak. Izan ere, egungo errealitatearen ezagutzak inoiz baino konplexutasun-maila handiagoa hartzen du. Teknologia ahalbidentzen du harremanak eta konexioak eskala mundialean gertatzea eta horrek ekonomian, pentsamenduan, politikan eta, oro har, bizitzako esparru guztietan loturak eta ondorioak gertatzea. Gertakizun makroaren eta mikroaren arteko banaketa gero eta lausoagoa da, egoera baten azterketan parametro eta ikuspegi desberdin, heterogeneo eta dibertsoak kontutan hartzea eskatzen du eta, beraz, honekin guztiarekin lortzen dugun ekuazioak ez du linealtasunik izango. Hots, egoera batean parte hartzen duten eragile eta aktoreak hiperbinkulaturik dira, horiek sortzen dituzten ondorio eta interakzioak biderkatzen dira eta errealitatearen irakurketa sare moduan irudikatzen zaigu.

Errealitatearen konplexutasunak bi ondorio zuzen dakartza: alde batetik, elkarkidetzan lan egiteko beharra, eta, bestetik, errealitatearen prozesu aldakor bat bezala kudeatzeko beharra.

Arkitektoa isolaturik izan ohi da pentsamendu egolatretan galdurik eta gizartearen beharretatik urrutitua; gainera, antropologia, soziologia, geologia, psikologia, denetatik jakitun da. Adierazi bezala, zailtasunak handiak dira benetako beharrak eta berauen eragin-esparruak identifikatzeko. Arkitektoaren guztiahaltasunak ez du lekurik gizartearen eraikitze-prozesu berrian. Jakinduriak partekatu behar dira emaitza indartsu baten bilaketan.

Bestalde, ezin da arkitektura proposamen itxi bat bezala ulertu. Errealitate aldakor eta eragin-eremu mugagabe bizi garen honetan, arkitektoak irudimen-sustatzailerik eta sorpresarako baliabideak ematen dituen espazioa sortu beharko luke. Pentsamendu iradokitzailez jositako espazioak erabiltzailearen rol aktiboa piztu behar du, bere inplikazioak espazioaren jabetze-prozesua ekarriko duelako, eta horrek espazioaren bizitasuna bermatuko duelako. Eta horrela, arkitekturak fisikotasunari balio erantsia eskaintzen dio.

Aipatzen ari garen espazioa, sistema eragile gisa ulertu zitekeen, non arkitektoak ez duen egoera konkretu bat ebatzi behar edo ez gutxienez ebatzpen alde bakarrekoa, baizik eta egoera desberdinetara egokitzen den eragile-eremuaren diseinu egokia eskaini. Arkitekturaren eginkizuna honela definituz, arkitektoa azken emaitzarekiko kontrola galtzen du eta une oro aldatzen ari den sistemen eraikitzailea da. Sistema bat, harremanean eta antolatutik diren elementu-multzo bat da; elementuak fisikoak edo abstraktuak izan daitezkeelarik. Elementuen loturak egonkorrak dira aldi baterako, baina nahikoa malgutasuna dute beste une desberdin batean beste sistema-forma bat jasotzeko. Beraz, espazioaz gain, egoera-sortzailea izan daiteke arkitektoa, gizakiaren beharrak asetzeko aukerak eskaintzen dituen ingurumena eratzeaz ari gara, alegia.

Hona hemen hortaz, arkitekto bat arkitekturarik gabeko arkitektura diseinatzen.



° Ula Iruretagoiena EHUko irakaslea eta arkitektoa da.